



**SOZIOLINGUISTIKA
KLUSTERRA**

Euskara biziberritzeko
ikergunea

Soziolinguistika albistaria

125. zenbakia

2022ko ekainak 24 – uztailak 7

Soziolinguistika Klusterreko albistekak

Euskal Soziolinguistika Jardunaldiko edukiak ikusgai daude

2022ko ekainaren 22an Bilbon Hizkuntzen erabileraren kale neurketaren emaitzak aztertzeke egin zen Euskal Soziolinguistika Jardunaldia. Orain ikusgai daude jardunaldiko kronika, aurkezpenak eta bideoak, besteak beste.

Olatz Altuna: "2006tik jaisten ari zen euskararen kale erabilera, eta joera hori eten egin da"

[Uztarrria] Soziolinguistika Klusterrak hizkuntzen erabileraren kale neurketa egin zuen iaz, eta neurketa horren emaitzak aurkeztu zituen ikerlanaren zuzendari Olatz Altunak joan den astean, Bilbon egindako Soziolinguistika Jardunaldietan.

Asier Basurto: "Mundua eta Euskal Herria asko eta azkar aldatzen ari da; aldaketa horiek ulertzea eta esku hartzeak testuinguru berrietara egokitzea dagokigu orain"

[Mintzanet] Euskal Soziolinguistika jardunaldiak egin ziren pasa den astean, euskararen erabileraren kale neurketaren emaitzak aztertuz, eragin dezaketen faktore ezberdinak aztertu eta euskalgintzatik ekiteko helburuarekin.

Hizkuntza gutxituak biziberritzeko Europako 100 ekimen baino gehiagoren informazioa ikusgai webgunean

Donostia 2016 Europako Kultur Hiriburuaren testuinguruan garatutako Hitzargiak proiektuaren edukiak ikusgai jarri dira soziolinguistika.eus webgunean.

Imanol Larreak egingo du Galesen Alan R. King katedrako ikerketa egonaldia

Etxepare Euskal Institutuak eta University of Wales Trinity Saint David unibertsitateak hautatu dute Alan R. King katedrako lehen ikertzailea. Soziolinguistika Klusterreko zuzendari Imanol Larrea Mendizabalek egingo du ikerketa egonaldia.

Ikerketak

Hiru herritarretik bik babesten dute ikasleen «euskalduntzea bermatzeko tresnak» jartzea

[BERRIA] Hezkuntza-sistemak beharrezko tresnak eta baliabideak jarri behar lituzke ikasle guztien euskalduntzea bermatzeko? Baietz uste dute hiru herritarretik bik, Telesforo Monzon Euskal Herrigintza Laborategiak argitaratutako Naziometroaren laugarren neurketaren arabera.

"Hizkuntza-autoestimua lantzeko tresna eraginkorrak sortzea da orain gure erronka"

[UEMA] Iñaki Arregi ikerketa bekaren bigarren deialdian gailendu ziren bi lanak ezagutarazi zituen epaimahaiak abenduan. Bi lan horietako bat zen euskal gazteen hizkuntza-autoestimuari dagokiona: faktoreen analisia eta egoera iraultzeko proposamena.

Jardunaldi, hitzaldi eta ikastaroak

Call for papers: XIX International Conference on Minority Languages (ICML) – Wales 2023

[ICML] The XIX International Conference on Minority Languages will be held in Wales between 20 and 24 June 2023. It is thirty years since the ICML was last held here.

International Symposium on Bilingualism (ISB14)

[ISB] ISB14 will take place on 26-30 June 2023, hosted by Macquarie University (Australia). The conference theme of ISB14 is Diversity Now and, in service to the International Decade of Indigenous Languages, ISB14 will focus on collaborative work with Australian indigenous languages.

II Curso de Formación: Lenguas amerindias y contacto lingüístico en Iberoamérica

[Universidad de Salamanca] Organizamos la segunda edición del curso de lingüística amerindia, que se celebrará entre el 20 y el 28 de septiembre de 2022 en la Facultad de Filología de la Universidad de Salamanca.

Non kokatu «gutasun» euskalduna, «dena» baldin badago egiteko

[NAIZ] Euskal nortasuna izan dute hizpide Joseba Sarrionandiak eta Onintza Odriozolak EHUK antolatzen dituen Udako Ikastaroetan. Nazio-eraikuntzaren kontzeptua ulertzeko gakoak eman eta euskalduntasunera bidean diren erronkak aurkeztu dituzte.

Aldarrikatu bainoago, egin

[BERRIA] Balio aurrerakoiak sustatzeko nahia, euskara horietarako bitarteko izanda: helburu hori antzematen zitzaien “Euskararen aldeko aktibazio soziala” jardunaldian hizlari aritutakoei. Eragiteko eta herrigintza egiteko moduez aritu ziren, euren elkarteek euskalgintzan funtzio ezberdina izanagatik.

Liburuak eta artikulu zientifikoak

La décision du Conseil Constitutionnel sur la Loi Molac

[Cairn.info] Cet article s'efforce de rendre compte de la décision du Conseil Constitutionnel suite au recours présenté contre l'un des articles de la Loi Molac qui vise à défendre et à promouvoir les langues minoritaires en France.

Altsasuko hizkuntza-paisaiaren azterketa euskararen biziberritzearen testuinguruan: merkataritzako esparrua

[Fontes Linguae Vasconum] Altsasuko merkataritzako hizkuntza-paisaiaren analisisira lehen hurbilpena egin dugu. Emaitzek erakusten dutenez, euskara Altsasuko merkataritzako paisaia linguistikoaan presente dago.

One Hundred Years of Irish Language Policy, 1922-2022

[Peter Lang] Published in the centenary year of the foundation of the Irish state, this book reviews one hundred years of government policy on Irish and assesses its relative success or failure.

French immersion ideologies in Canada

[HABE Liburutegia] Sylvie Roy gives voice to people who have experiences with French immersion programs in Alberta. She interprets questions related to language ideologies, as well as reasons people learn French as an additional language and why some students are asked to learn English first.

Dokumenturen bat edo informazio bibliografiko gehiago nahi izanez gero, jo zuzenean HABE Liburutegira (liburutegi@habe.eus), beraiek arduratuko baitira zure eskaria bideratzen.

Bestelako albisteak

(lan deialdia) Hizkuntza aniztasunaren kudeaketa

[Lansarean - Topagunea] Hizkuntza aniztasunaren kudeaketarako programak koordinatzea eta garatzea da lanpostu honen zeregina. Curriculumak aurkezteko epe-muga uztailaren 12a da, 14:00ak arte.

Euskaldunak Louisbourg-era itzuli dira, Mi'kmaq nazioarekin berriz elkartzera

[NAIZ] XVIII. mendean Louisbourg-en, Unama'kin edo Cape Bretoneko uhartean, frantsesaren atzetik euskara zen hizkuntza erabilienetako bat. Hiru mende beranduago, kolonia hura birsortzen duen espaziora itzuli dira euskaldunak, Mi'kmaq lehen nazioarekin izandako loturak berreskuratuz.

Hizkuntza gutxituetan idazten duten emakumeak ingelesera itzuliko dituen argitaletxea jai da

[ARGIA] Argitaratuko dituzten lehenengo bi itzulpenak Núria Bendichoren Terres Mortes (ingelesez Dead Lands) eta Katixa Agirrerren Amek ez dute (ingelesez Mothers Don't) izango dira. Urtean bost liburu argitaratzea da helburua.

#27. O Rif. A rexión indómita do Maghreb

[Fóra de mapa] Cun chisco de retraso publicamos o episodio 27 de #FóradeMapa. Saímos da continente pra falarmos do Rif. Unha rexión maghrebi cunha identidade marcada pola bravura da súa xente.



Babeslea:



Gipuzkoako Foru Aldundia
Diputación Foral de Gipuzkoa

Bazkide partaidea:

